



Josep-Ramon Olivé baritonoak eta Francisco Poyato pianistak mélodie française errezital bat eskainiko dute

- Artistek Ravel edo Poulenc-en musika joko dute Lied Arriagan zikloko bigarren kontzertua den honetan, otsailaren 26an, asteazkenean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

Bilbo, 2025eko otsailaren 24a.- LIED ARRIAGAN zikloaren hirugarren edizioak aurrera jarraitzen du eta denboraldi honetarako programatutako bost emanaldietatik bigarrena datorrigu orain. Asteazkenean, otsailaren 26an, 19:30ean, **Josep-Ramon Olivé** baritonoak eta **Francisco Poyato** pianistak mélodie française errezital bat eskainiko dute antzokiko foyerrean.

Berariaz aukeratu duten erreperitorioak bistako lotura du Euskal Herriarekin; izan ere, kontzertuak Maurice Ravelen irudia hartzen du ardatz nagusi gisa, hura izango baita interpretatutako egileetako bat. Aukeraketa ez da ustekabekoa, ezta gutxiago ere, aurten ospatzen den Ziburuko konpositore bikainaren jaiotzaren 150. urteurrenarekin bat datorrela aprobetxatu baitute. Bestalde, errezitalean, Ravelen piezez gain, Olivék eta Poyatok lekua emango diete, Ravelen beraren garaikide izanik, euren obran mélodieari funtsezko leku bat eskaini zioten beste musikagile batzuei. Horrela, Reynaldo Hahn de Echenagucia venezuelarraren piezaren bat entzungo da: bera ere jatorri euskaldunekoa zen, baita Ravelen ikaskide ere Parisko Kontserbatorioan.

Entzuleek Déodat de Severaceren doinuekin ere gozatuko dute: Viñas, Caplet, Falla edo Stravinskirekin batera, Ravelen lagunarte musikaleko Les Apaches taldeko kidea zenaren doinuekin, edo Lili Boulangerrek sortutakoekin; azkenak, Ravelek bezala, Gabriel Faurerekin ikasi zuen. Musikari-familia bateko kide zen Lili eta, hain gazte izan arren, edo hain gazte izanagatik, ohiz kanpoko sakontasuneko lan ugari sortu zituen konpositore gisa, 24 urterekin, gaixotasunak jota bizi ondoren, hil zen arte. Raveli bezala, Liliri ere folklore-musika eta ekialdeko musika interesatzen zitzaizkion.

Poulencekin bukatuko dugu errezitala, XX. mendeko mélodie egilerik handienarekin. Garai hartan gizateria gogor jo zuen gertakaria da entzungo dugun obraren gaia: gerra. Poulenc frontean egon zen 40 urte beteta zituela. Ravel eta Hahn bezala. Horiek biak Lehenengo Mundu Gerran izan ziren, Poulenc, aldiz, Bigarrenean. *Calligrammes*, «bake- eta gerra-poemak» izeneko pieza Guillaume Apollinairek idatzi zuen frontean, 1913. eta 1916. urteen artean, eta Francis Poulencek 1948an musikatu zuen. Amaiera bikaina emango dio Arriagako foyerrean izango dugun ekitaldi bereziari.

Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren hirugarren edizioa antolatzen du 2025eko urtarrila eta ekaina bitartean. Irene Mas Salomek eta Malcolm Martineauk urtarrilean inauguratu zuten zikloa eta, orain, Josep-Ramón Olivé eta Francisco Poyatoren txanda

da. Bi hilabete barru, apirilaren 23an, Inés Lorans sopranoaren txanda izango da, Rubén Fdez. Aguirre pianoan lagun duela. Maiatzean, hilaren 27an hain zuzen, eta, berriro ere, Fdez. Aguirrereren parte hartzearekin, Laura Brasó sopranoak eta Mikel Uskola kontratenorrak errezitala eskainiko dute foyerrean. Eta jada ekainean, hilaren 18an, Lied Arriagan zikloari amaiera emango dion kontzertua egingo dute Nuria Rial sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirrek berak, zeinak elkarlanean baitihardu Arriaga Antzokiarekin ziklo hau burutzeko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 16 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus